3. Podrá concederse dicho permiso para la participación de los y las empleadas municipales en cursos selectivos o periodos de prácticas encaminadas al acceso a escalas del propio Ayuntamiento o de otras Administraciones Públicas. Este permiso se otorgará por el período de duración del curso y prácticas, y no dará lugar a retribución alguna.

**Artículo 65. - Permiso de reducción de jornada por asuntos propios**

El personal municipal podrá solicitar la reducción de jornada con la reducción proporcional de todas sus retribuciones, incluida la cotización a la Seguridad Social, en aquellos supuestos en que ni las razones del servicio ni el tipo de actividad así lo impidiera. La negativa será comunicada a la representación del personal, dándoles traslado de las razones de la misma. Esta reducción conllevará aparejada la sustitución siempre que así sea solicitado por la jefatura de la unidad administrativa correspondiente. La reducción se realizará durante la segunda mitad de la jornada, salvo acuerdo en contrario y, en todo caso, tendrá un plazo mínimo de duración de seis



meses.

**66. artikulua.- Baimena izaera zientifikoa, teknikoa, profesionala, kolegiatua, elkartekoa edo sindikala duten ekitaldi kolektiboetara joan ahal izateko**

Urtean guztira 15 egun naturaleko zatikako baimenak eman ahal izango zaizkie udal langileei izaera zientifikoa, teknikoa, profesionala, kolegiatua, elkartekoa edo sindikala duten ekitaldi kolektiboetara joan ahal izateko, hala nola biltzar, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, solasaldi, hitzaldi, batzar, jardunaldi eta bestelakoetara.

2. Aztertuko diren gaiak Udalarentzat interesgarriak izanez gero, dietak, bidaiako gastuak, egonaldi-gastuak, izena emateko gastuak eta bestelakoak ordaintzeko eskatu ahal izango dio udal langileak Udalari. Horretarako, ahalik eta denbora tarte laburrenean txosten zehatza aurkeztu beharko du jasotako esperientziei eta horiek zerbitzu publikoaren mesedetan aplikatzeko dauden aukerei buruz.

3. Aztertzen diren gaiak udal langilearen intereserako bakarrik badira, ezin izango du kalte-ordainik eskatu, ezta dietengatik, bidaiagastuengatik, egonaldiagatik eta izen-emateagatik ere. Horiek ordaintzea interesdunari egokituko zaio.

**Artículo 66.- Permiso por asistencia a eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical**

Podrán concederse permisos al personal municipal por un período total fraccionable de 15 días naturales al año, para la asistencia a congresos cursos, cursillos, seminarios, simposios, encuentros, certámenes, coloquios, conferencias, reuniones, jornadas y demás eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical.

2. Si las asistencias tratasen materias de interés para el Ayuntamiento el personal municipal asistente tendrá derecho al abono de la pertinente indemnización por dietas, gastos de viaje, de estancia, y de inscripción u otros y vendrá obligado a evacuar a la mayor brevedad posible, un detallado informe relativo a las experiencias adquiridas y a las posibilidades de aplicación práctica de las mismas en interés del servicio público.

3. El permiso concedido por interés exclusivo del personal municipal no causará derecho al abono de indemnización alguna, por ningún concepto ni tan siquiera por dietas, gastos de viaje, de estancia o de inscripción, que correrán a cargo de la persona interesada.

**BIGARREN TITULUA.  
ORDAINSARIEN ARAUBIDEA**

**TÍTULO SEGUNDO.  
DEL RÉGIMEN DE RETRIBUCIONES**

**I. Kapitulua. ARAUBIDE OROKORRA**

**Capítulo I. RÉGIMEN GENERAL**

**67. artikulua.- Ordainsariak. Aplikazio-eremua**

1. Udal langileen ordainsariak bat etorriko dira Estatuko oinarritzko legediarekin, erkidego

**Artículo 67.- Retribuciones. Ámbito de aplicación**

Las retribuciones del personal municipal se ajustarán a la legislación básica del estado, a



autonomikoko legediarekin, eta akordio honetan xedatutakoarekin, bai ordainsari kontzeptuei dagokienez, baita aplikatu beharreko zenbatekoei dagokienez ere.

2. Hori dela eta, udal langileak ezingo du inolako funtsen banaketan parte hartu ez eta akordio honetan jasotzen ez den lansaririk jaso ere; proiektuak edo aurrekontuak prestatzeagatik, obrak ikuskatzeagatik edo zuzentzeagatik, aholkularitza, auditoriak, kontsultak egiteagatik eta txostenak eta irizpenak emateagatik ere ezin izango du bestelako lansaririk jaso.

3. Artikulu honen aurreko paragrafoetan zehaztutakoa ez betetzea erantzukizun pertsonalerako arrazoa izango da ordainketa egitea agindu duenarentzat zein irregulartasunaren berri emateko ardura duten pertsonentzat.

4. Lanaldi partzialeko lanpostuetan diharduten edo ohiko lanaldia baino lanaldi murriztagoa egiteko baimena duten udal langileek horri proportzionala zaion ordainsaria jasoko dute.

5. Banakako ordainsariak akordio honek jasotzen duen edukira egokitzeko, titulu honetan agindutakoari jarraituko zaio.

### **68 artikulua.- Ordaintzeko agindua**

Udal langileen ordainsarien ordainketa agintzeak lehentasuna izango du egin beharreko beste edozeinen aurretik, eta ordezkio prozedura arautuko da beharrezkoak diren ebazpenen bidez, modu horretan interesdunek jaso ahal izateko bidegabe ordaindu gabe utzi zaizkien zenbatekoak.

### **69. artikulua.- Publizitatea**

Langile publiko bakoitzak jasotzen dituen ordainsariak

legislación autonómica, y a las previsiones del presente Acuerdo, tanto en los conceptos retributivos como en las cuantías que resulten de aplicación.

2. En su virtud, el personal municipal no podrá participar en la distribución de fondos de ninguna clase, ni percibir remuneraciones distintas a las comprendidas en este Acuerdo, ni incluso, por confección de proyectos o presupuestos, dirección o inspección de obras, asesorías, auditorías, consultorios, emisiones de dictámenes e informes.

3. La infracción de lo dispuesto en los párrafos anteriores de este artículo, será causa de responsabilidad personal tanto para la persona ordenadora del pago, como para quienes tengan la misión de informar sobre la posible irregularidad de la concesión.

4. El personal municipal que desempeñe puestos de trabajo con jornada a tiempo parcial o que esté autorizado a realizar una jornada inferior en cómputo horario a la fijada como ordinaria recibirá una retribución proporcional a la misma.

5. La adecuación de las retribuciones individuales al contenido del presente Acuerdo se realizará conforme a lo que se preceptúa en este Título.

### **Artículo 68.- Ordenación del pago**

La ordenación del pago de las retribuciones del personal municipal tendrá preferencia sobre cualquier otro que deba realizarse, y se regulará mediante las resoluciones oportunas el procedimiento sustitutorio para el percibo por las personas interesadas de las cantidades que indebidamente hayan dejado de satisfacerseles.

### **Artículo 69.- Publicidad**

Las retribuciones que perciba cada persona



jendaurrean ezagutaraziko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legediak jasotzen duenaren arabera; dena dela, norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legedia bete beharko da.

empleada pública serán de público conocimiento, de acuerdo con la legislación de Función Pública Vasca, respetando, en todo caso, la normativa vigente en materia de protección de datos personales.

**70. artikulua.- Ordainsari kontzeptuak.**

Udaleko udal langileek jaso ditzaketen ordainsari kontzeptuak hauek dira:

Oinarrizkoak eta osagarriak:

- a) Soldata.
- b) Antzinasuna.
- c) Lanpostu-mailako osagarria.
- d) Berariazko osagarria.
- e) Aparteko ordainsariak.
- f) Produktibitate-osagarria.
- g) Aparteko zerbitzuen haborokinak.

Halaber, indarrean dagoen legeriak toki-erakundeetako langileentzat aurreikusten dituen beste ordainsari kontzeptu batzuk.

Ordainsari maila altuena duten langileen ordainsari gordinak ezingo du izan ordainsari maila baxuena duten langileena halako 3 baino handiagoa, betiere ordainsari horiek modu homogeneo batean neurtuta.

**71. artikulua.- Soldata**

1. Soldataren kontzeptua, arautzea eta egitura Euskal Funtzio Publikoaren Legeak eta akordio honek zehaztuko dituzte.

**Artículo 70.- Conceptos retributivos.**

Los conceptos retributivos que puede percibir el personal municipal en el Ayuntamiento son los siguientes:

Básicas y complementarias:

- a) El sueldo.
- b) Antigüedad.
- c) El complemento de destino.
- d) El complemento específico.
- e) Las pagas extraordinarias.
- f) El complemento de productividad.
- g) Las gratificaciones por servicios extraordinarios.

Así como aquellos otros conceptos retributivos que puedan ser previstos por la legislación vigente para el personal de las entidades locales.

La retribución bruta de las y los empleados con mayor nivel retributivo, no podrá superar en 3 veces a la correspondiente al personal con menor nivel retributivo, siempre medida en términos de homogeneidad.

**Artículo 71.- El sueldo**

1. El concepto, regulación y estructura del sueldo será el determinado en la normativa de la Función Pública Vasca y el presente acuerdo.



2. Langile publikoen soldataren zenbatekoa indarrean dagoen legediak ezarritakoa izango da.	2. La cuantía del sueldo de las y los empleados públicos será la que marque la legislación vigente.
3. Langile publikoak talde hauetan banatuko dira, sartzeko eskatu zitzaizen titulazio mailaren arabera:	3. Las y los empleados públicos estarán agrupados, según el nivel de titulación exigido para su ingreso, en los siguientes grupos:
A-1 taldea: Gradu titulua, lizentziaduna, goi mailako ingeniaria, arkitektoa edo baliokidea.	Grupo A-1: Título de Grado, Licenciado, Ingeniero Superior, Arquitecto o equivalente.
A-2 taldea: Gradu titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomaduna, arkitekto teknikoa, edo baliokidea.	Grupo A-2: Título de Grado, Ingeniero Técnico, Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico o equivalente.
B taldea: Goi mailako teknikari titulua edo baliokidea.	Grupo B: Título de Técnico Superior o equivalente
C-1 taldea: Batxiler titulua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.	Grupo C-1: Título de Bachiller, Formación Profesional de 1º. Grado, o equivalente.
C-2 taldea: DBHko titulua, eskola-graduatu edo baliokidea.	Grupo C-2: Título de E.S.O., Graduado Escolar o equivalente.
LT taldea: Eskola-ziurtagiria.	AP: Certificado de Escolaridad.

**72. artikulua.- Antzinasuna**

1. Antzinasunaren kontzeptua, arautzea, egitura eta zenbatekoa Euskal Funtzio Publikoaren araudiak eta akordio honek zehaztuko dituzte.

2. Hiru urteko zerbitzu aldi bakoitzeko ematen diren hirurtekoak osatzeko eta likidatzeko, edozein administrazio publikotan egindako zerbitzu guztien denbora zenbatuko da, bai karrerako zein bitarteko funtzionario gisa, bai lan-kontratudun gisa, administrazio zuzenbideko nahiz lan zuzenbideko araubidean. Baita behin-behineko langile gisa egindakoa ere.

3. Hirurtekoak osatzeko unean langile publikoa dagoen taldeari edo azpi-taldeari dagokion egungo balioaren arabera sorrarazi eta ordainduko dira jasoko dituen

**Artículo 72.- Antigüedad**

El concepto, regulación, estructura y cuantía de la antigüedad será el determinado en la normativa de la Función Pública Vasca y en el presente Acuerdo.

2. Para el perfeccionamiento y liquidación de trienios por cada tres años de servicios, se computará el tiempo correspondiente a la totalidad de los servicios efectivos indistintamente prestados en cualesquiera Administraciones Públicas, tanto en calidad de funcionario de carrera como interino, de contratado en régimen de derecho administrativo o laboral, así como los servicios efectivos prestados como personal eventual.

3. Los trienios se devengarán y harán efectivos con el valor actual correspondiente al grupo o subgrupo al que la o el empleado público pertenezca en el



hirurtekoen zenbatekoak.

momento de su perfeccionamiento.

### 73. artikulua.- Lanpostu-mailako osagarria

1. Lanpostu-mailako osagarriaren kontzeptua, arautzea, egitura eta zenbatekoa Euskal Funtzio Publikoaren araudiak eta akordio honek zehaztuko dituzte.

2. Lanpostu-mailako osagarria betetzen den lanpostuaren mailaren araberakoa da, eta horren zenbatekoa Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek zehaztuko dute urtero.

3. Udalak lanpostu bakoitzari dagokion lanpostu-mailako osagarria zehaztuko du.

4. Lanpostuak 30 mailatan sailkatuko dira, eta horien minimoak eta maximoak abenduaren 22ko 343/1992 Dekretuaren arabera zehaztuko dira, eskala hau jarraituta:

### Artículo 73.- El complemento de destino

1. El concepto, regulación, estructura y cuantía del complemento de destino será el determinado en la normativa de la Función Pública Vasca y en el presente Acuerdo.

2. El complemento de destino es el correspondiente al nivel del puesto que se desempeñe, cuya cuantía se fijará anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

3. El Ayuntamiento fijará para los distintos puestos de trabajo el nivel de complemento de destino que le corresponda a cada uno de ellos.

Los puestos de trabajo se clasificarán en 30 niveles cuyos mínimos y máximos quedan fijados, de acuerdo con el Decreto 343/1992 de 22 de diciembre, conforme a la siguiente escala:

	<b>Maila Minimoa</b>	<b>Maila Maximoa</b>
	Nivel Minimo	Nivel Maximo
<b>A Taldea</b> / Grupo A:	21	30
<b>B Taldea</b> / Grupo B:	17	26
<b>C Taldea</b> / Grupo C:	14	22
<b>D Taldea</b> / Grupo D:	11	19
<b>E Taldea</b> / Grupo E:	8	16

### 74. artikulua.- Berariazko osagarria

1. Berariazko osagarriaren kontzeptua, arautzea, egitura eta zenbatekoa Euskal Funtzio Publikoaren araudiak eta akordio honek zehaztuko dituzte.

### Artículo 74.- El complemento específico

1. El concepto, regulación, estructura y cuantía del complemento específico será el determinado en la normativa de la Función Pública Vasca y en el presente acuerdo.



2. Berariazko osagarriek lanpostu batzuen ezaugarri bereziak saritzeko helburua dute, kontuan izanda honako ezaugarri hauek: zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskugarritasuna eta nekagarritasuna.

2. El complemento específico está destinado a retribuir las condiciones particulares de los puestos de trabajo en atención a su especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad.

3 Lanpostu bakoitzari ezin izango zaio berariazko osagarri bat baino gehiago esleitu, baina, hori ezartzeko orduan, aurreko atalean aipatutako ezaugarrietako bi edo gehiago batera hartu ahal izango dira kontuan, lanpostu batek ezaugarri horiek baldin baditu; ildo horretan, berariazko osagarriaren tarte hauek ezarri dira:

3. En ningún caso podrá asignarse más de un complemento específico a cada puesto de trabajo, aunque al fijarlo podrán tomarse en consideración conjuntamente dos o más de las condiciones particulares mencionadas en el apartado anterior que puedan concurrir en un puesto de trabajo; en este sentido se establecen los siguientes tramos del complemento específico:

a) Tarte orokorreko berariazko osagarria.

a) Complemento específico tramo general.

b) Dedikazio bereziko tarteko berariazko osagarria.

b) Complemento específico tramo dedicación especial.

#### **75. artikulua. Tarte orokorreko berariazko osagarria**

Lanpostuen funtsezko ezaugarriak saritzen ditu tarte orokorreko berariazko osagarriak, lanpostuak ezinbestean dakartzan zailtasun tekniko berezi, erantzukizun, bateraezintasun, arriskugarritasun edo nekagarritasunarekin lotuta, baldin eta lanpostuari eragiten badiote era ohikoan, jarraituan eta ez noizbehinkakoan.

#### **Artículo 75. El complemento específico tramo general**

El complemento específico tramo general retribuye las características esenciales de los puestos de trabajo en relación a su especial dificultad técnica, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad inherentes al puesto de trabajo cuando afecten al mismo de forma habitual, continuada y no esporádica.

Era berean, jaiegunetan edo gauean zerbitzuak eman behar izatea nekagarritasuntzat joko da, aurreko atalean jasotzen den ohikotasunaren baldintza betetzen bada.

Asimismo se considerará penosidad la obligación de prestar servicios en jornadas festivas o nocturnas, de conformidad con el requisito de habitualidad indicado en el punto anterior.

#### **76. artikulua.- Dedikazio bereziko tarteko berariazko osagarria**

Lanpostu jakin batzuen ezaugarri bereziak saritzen ditu dedikazio bereziko tarteko berariazko osagarriak, honako hauekin lotuta: ohikoa baino lanaldi luzeagoa egin beharra, dedikazio bereziak, prestasuna eta bateraezintasuna. Ildo horretan, dedikazio bereziko

#### **Artículo 76.- El complemento específico tramo dedicación especial**

El complemento específico tramo dedicación especial retribuye las condiciones particulares de determinados puestos de trabajo con relación a sus especiales requerimientos en cuanto a la exigencia de realizar una jornada superior a la habitual,





tarteko berriazko osagarriaren barruan modalitate hauek zehazten dira:

- a) Lanaldi luzatuaren modalitatea.
- b) Erabateko prestasunaren modalitatea.
- c) Erabateko prestasuneko lanaldi luzatuaren modalitatea.

Udalak dedikazio bereziko tarteko berriazko osagarria esleitzeko irizpideak onartuko ditu hala eskatzen duten lanpostuetan, eta, onartu aurretik, langileen ordezkariekin negoziatuko ditu.

#### **77. artikulua.- Lanaldi luzatuaren modalitatea**

1. Urtean benetako 93 lanordu gehiago egitea saritzen du lanaldi luzatuaren modalitateak; lanaldi zatituan, txandaka, eta, Udalak Lanpostuen Zerrendan horrela zehazten badu, larunbatetan eta jaiegunetan egin daitezke ordu horiek, udal langileen ordezkariekin negoziatu eta gero, eta irizpide murriztailea eta berezitasunezkoa erabilita.

2. Lanaldi luzatua duten lanpostuek, gehienez, kopuru hau jasoko dute kontzeptu horregatik: soldata, lanpostu-mailako osagarria eta tarte orokorreko berriazko osagarria batzean lortzen den zenbatekoaren % 10.

#### **78. artikulua.- Erabateko prestasunaren modalitatea**

Erabateko prestasunaren modalitateak hauxe ordaintzen du: lanaldi motaren ezaugarriek, lokalizazio-eskakizunek, eta ohiko ordutegitik kanpo (joan-etorriak, bidaiak, ordutegitik kanpo) zein ordutegi

dedikaciones especiales, disponibilidad e incompatibilidad; en este sentido se establecen las siguientes modalidades del complemento específico tramo dedicación especial:

- a) Modalidad de jornada ampliada.
- b) Modalidad de disponibilidad absoluta.
- c) Modalidad de jornada ampliada con disponibilidad absoluta.

El Ayuntamiento aprobará los criterios para la asignación del complemento específico tramo dedicación especial a los puestos de trabajo que así lo requieran, y con carácter previo a su aprobación procederá a su negociación con la representación del personal.

#### **Artículo 77.- Modalidad de jornada ampliada**

1. La modalidad de jornada ampliada retribuye la realización de 93 horas anuales más de trabajo efectivo, pudiéndose realizar en régimen de jornada partida, en régimen de turnos, pudiendo incluir el trabajar los sábados y festivos si el Ayuntamiento así lo determina en la Relación de Puestos de Trabajo, previa negociación con la representación del personal municipal, con criterio restrictivo y de singularidad.

Los puestos de trabajo con jornada ampliada percibirán por este concepto un máximo del 10% de la cantidad resultante de la suma de sueldo, complemento de destino y complemento específico tramo general.

#### **Artículo 78.- Modalidad de disponibilidad absoluta**

La modalidad de disponibilidad absoluta retribuye el nivel de penosidad e incomodidad producido por las características del tipo de jornada, requerimientos de localización y presencia física (disponibilidad) en el



malguan eta abar lanpostuan egon behar izateak (prestasuna) eragindako nekagarritasun- eta deserosotasun-maila. puesto de trabajo fuera del horario habitual (desplazamientos, viajes, fuera del horario...) en horario flexible, etc.

Erabateko prestasunaren modalitateak berarekin dakar, definituko diren tarteetako bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, betiere: La modalidad de disponibilidad absoluta supone, siempre tomando en cuenta las características de cada uno de los tramos que se definan:

a) Ezin da irabazizko beste jarduerarik egin, eremu publikoan zein pribatuan. La prohibición de ejercer cualquier otra actividad lucrativa, tanto pública como privada.

b) Lanpostu baten titularrak bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko prestasun osoa izan behar du bere ohiko lanalditik kanpo, ordutegi malguarekin; zerbitzuaren premiagatik edo larrialdi egoera batean bere zerbitzuak eskatzen direnean, lanlekura joan beharko du, eta horren barruan sartzen dira joan-etorriak eta antzeko beste eskakizun batzuk. La absoluta disponibilidad de la persona ocupante de un puesto de trabajo a ejercer las funciones propias del puesto fuera de su jornada habitual de trabajo en horario flexible, teniendo la obligación de acudir a su puesto de trabajo en cualquier momento cuando por necesidades del servicio o urgencia sea requerida para hacerlo, incluyendo la realización de desplazamientos, así como otros requerimientos de naturaleza análoga.

c) Ohiko lanalditik kanpo egindako aparteko lanagatik ematen den konpentsazio ekonomikoa edo atsedendebora eskuratzeko eskubidetik kanpo geratzen dira modalitate honetako lanpostuen titularrak. c) La percepción de este tramo elimina todo derecho a la compensación económica o en tiempo de descanso por realización de servicios extraordinarios fuera de la jornada habitual.

d) Zerbitzu arrazoiengatik dedikazio hori baliatu beharrik ez balego ere, horrek ez du eragin ekonomikoa kaltegarri izango. d) Si por razones del servicio no fuera necesaria la realización de esta dedicación, no tendrá efectos económicos negativos.

e) Udalak aukera izango du lanpostuaren egutegia eta ordutegia aldatzeko zerbitzuaren beharrezan araberak, baina horretarako aldaketa horren berri eman beharko du aurrez, gutxienezko denbora tarte baten barruan. e) La facultad del Ayuntamiento de modificar el calendario y el horario de trabajo del puesto con preaviso mínimo imprescindible en función de las necesidades del servicio.

2. Erabateko prestasuna duten lanpostuek, gehienez, kopuru hau jasoko dute kontzeptu horregatik: soldata, lanpostu-mailako osagarria eta tarte orokorreko berariazko osagarria batzean lortzen den zenbatekoaren % 20. 2. Los puestos de trabajo con el requerimiento de disponibilidad absoluta percibirán por este concepto un máximo del 20% de la cantidad resultante de la suma de sueldo, complemento de destino y complemento específico tramo general.

**79. artikulua.- Erabateko prestasuneko lanaldi luzatuaren modalitatea**

1. Erabateko prestasuneko lanaldi luzatuak aipatutako bi kontzeptuak saritzen ditu aldi berean, lanaldi luzatua eta erabateko prestasuna, beren eskakizun eta inplikazio guztiekin.

2. Erabateko prestasuneko lanaldi luzatua duten lanpostuek, gehienez, kopuru hau jasoko dute kontzeptu horregatik: soldata, lanpostu-mailako osagarria eta tarte orokorreko berariazko osagarria batzean lortzen den zenbatekoaren % 25.

**80. artikulua.- Baldintzak betetzea**

1.- Erabateko prestasunaren edo erabateko prestasuneko lanaldi luzatuaren osagarriak jasotzen dituenak ez badu betetzen irabazizko beste edozein jarduera egiteko debekua, diziplina erantzukizuna ekarriko dio horrek, falta astuna egiteagatik; era berean, osagarria jasotzeko eskubidea etengo zaio automatikoki, eta, horretarako, ordainsari osagarri hori jasotzeko baldintzak ez dituela urratzen egiaztatu beharko da, urtean behin gutxienez.

2.- Urtean behin txostena idatziko da, non honako hauek agertuko diren: erabateko prestasunaren edo erabateko prestasuneko lanaldi luzatuaren modalitateko berariazko osagarriak kobratzen dituzten langileek egindako aparteko lanak, eskakizunak eta ohiko ordutegietatik kanpoko ekintzak. Eta, osagarri horiek eten egingo dira, lan horiek egutegia egokituz egin daitezkeela detektatzen bada. Osagarri horiek kobratzen dituzten udal langileek ez badute bete ohiko lanalditik kanpo lanera joateko edo beren lana egiteko egin zaien deia, ezintasuna egiaztatzeko ziurtagiririk izan gabe, eta ez betetze horren jakinarazpena edo salaketa jaso bada, dagokien informazio-espedita irekiko zaie izandako gertakariak argitze aldera,

**Artículo 79.- Modalidad de jornada ampliada con disponibilidad absoluta**

1. La modalidad de jornada ampliada con disponibilidad absoluta retribuye conjuntamente los conceptos anteriormente reseñados, jornada ampliada y disponibilidad absoluta, con todos sus requerimientos e implicaciones.

2. Los puestos de trabajo con el requerimiento de jornada ampliada con disponibilidad absoluta percibirán por este concepto un máximo del 25% de la cantidad resultante de la suma de sueldo, complemento de destino y complemento específico tramo general.

**Artículo 80.- Cumplimiento de requisitos**

1.- El incumplimiento de la prohibición de ejercer cualquier otra actividad lucrativa, en los casos de percepción del complemento específico modalidad disponibilidad absoluta o jornada ampliada con disponibilidad absoluta, dará lugar a la correspondiente responsabilidad disciplinaria por falta grave, así como a la suspensión automática en el percibo del complemento, a cuyo efecto deberá someterse a comprobación periódica, al menos anual, la observancia de las condiciones establecidas en el devengo de esta retribución complementaria.

2.- Se redactará un informe anual en el que se reflejen qué trabajos extra, requerimientos y acciones fuera de horarios habituales han sido llevados a cabo por las personas que perciban complementos específicos modalidad disponibilidad absoluta o jornada ampliada con disponibilidad absoluta, suspendiendo estos complementos si se observa que se pueden cubrir esos trabajos optimizando el calendario laboral; al personal municipal que perciba estos complementos y haya incumplido el llamamiento de acudir o realizar su trabajo fuera de su jornada habitual, sin justificantes que acrediten una imposibilidad, recibida comunicación o denuncia de dicho incumplimiento,



diziplina-espeditari hasiera ematea erabakitzen duen ebazpena eman aurretik.

**81. artikulua.- Aparteko ordainsariak**

1. Aparteko ordainsarien kontzeptua, arautzea, egitura eta kopurua dagokion araudian zehazten dira.

2. Aparteko ordainsariak nominan jasotzeko, akordio honek dioena kontuan hartuko da.

**82. artikulua.- Produktibitate osagarria**

Produktibitate osagarriaren kontzeptua, arautzea, egitura eta kopurua euskal funtzio publikoaren araudi aplikagarrian zehazten da.

**83. artikulua.- Aparteko zerbitzuen haborokinak**

Aparteko zerbitzuen haborokinak ezin izango dira finkoak izan, ez zenbatekoari dagokionez, ez maiztasunari dagokionez, eta honako bi modalitate hauetako baten arabera emango dira:

Zerbitzu publikoaren gorabeherak direla-eta, ohiko lanalditik kanpo egiten diren eta atsedeen-denboraz konpentsatzen ez diren aparteko eta ezohiko zerbitzuengatik ematen den konpentsazioa.

b) Lanpostu bateko zereginek dakarten nekagarritasuna, arriskugarritasuna edo toxikotasuna une jakin batean asko handitzeagatik ematen den konpentsazioa; gauean edota jaiegunetan lan egitea horren barruan sartzen da, betiere egoera hori noizbehinkakoa baldin bada.

**84. artikulua.- Ohiko lanalditik kanpo egindako aparteko zerbitzuen haborokinak**

1. Aparteko zerbitzuen konpentsazioa irizpide hauen

le será abierto el correspondiente expediente informativo para el esclarecimiento de los hechos ocurridos, antes de dictar resolución en la que se decida la iniciación de expediente disciplinario.

**Artículo 81. Las pagas extraordinarias**

1. El concepto, regulación, estructura e importes de las pagas extraordinarias se determina en la normativa correspondiente.

2. La percepción en nómina de las pagas extraordinarias tendrá en cuenta lo establecido en este Acuerdo.

**Artículo 82.- Complemento de productividad**

El concepto, regulación y estructura y cuantía del complemento de productividad se determina en la normativa aplicable de la función pública vasca.

**Artículo 83.- Las gratificaciones por servicios extraordinarios**

Las gratificaciones por servicios extraordinarios, que en ningún caso podrán ser fijas en su cuantía ni periódicas en su devengo, deberán responder a una de las dos siguientes modalidades:

a) Compensación de los servicios extraordinarios y no habituales, por contingencias del servicio público, realizados fuera de la jornada habitual de trabajo, no compensadas en tiempo de descanso.

b) Compensación por el significativo agravamiento puntual y ocasional de la penosidad, la peligrosidad o toxicidad de las tareas a realizar por un puesto de trabajo, incluyendo el trabajo en nocturno y/o en festivo, siempre y cuando dichas circunstancias sean estrictamente ocasionales o esporádicas.

**Artículo 84.- Gratificaciones por servicios extraordinarios fuera de la jornada habitual**

1. La compensación por la realización de servicios



arabera egingo da:

extraordinarios se retribuirá de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Lanegun batean egindako aparteko ordua ordu arruntarekiko % 75 gehiagorekin konpentsatuko da.

a) Una hora extraordinaria efectuada en día laborable se incrementará respecto a la hora ordinaria en un 75%.

b) Gaueko edo jaieguneko ordutegian egindako aparteko ordua ordu arruntarekiko % 100 gehiagorekin konpentsatuko da.

b) Una hora extraordinaria realizada en horario nocturno o festivo se incrementará respecto a la hora ordinaria en un 100%.

c) Gaueko eta jaieguneko ordutegian egindako aparteko ordua ordu arruntarekiko % 125 gehiagorekin konpentsatuko da.

c) Una hora extraordinaria realizada en horario nocturno y festivo se incrementará respecto a la hora ordinaria en un 125%.

2. Lanpostu batek erabateko prestasunaren edo erabateko prestasuneko lanaldi luzatuaren berariazko osagarri bereziak jasotzen baditu, ezin izango da aparteko zerbitzuen konpentsazio hori jaso.

2. No procederá su compensación o percepción en aquellos puestos de trabajo en los que para la determinación del complemento específico se incluyan las modalidades de disponibilidad absoluta o jornada ampliada con disponibilidad absoluta.

3. Aparteko zerbitzuengatik eman beharreko konpentsazioak jarduera horiek egin eta hurrengo hilabeteko nominan ordainduko dira.

3. Las cantidades a devengar por servicios extraordinarios se abonarán en la nómina del mes siguiente a su realización.

4. Arau orokor moduan, aparteko zerbitzuetan egiten diren orduak atsedean denborarekin konpentsatuko dira, salbu eta zerbitzuaren beharengatik hori ezinezkoa bada. Horretarako, departamentuko arduradun teknikoak justifikazio txostena bidali beharko du Giza Baliabideetako departamentura.

4. Como norma general los servicios extraordinarios se compensarán en tiempo de descanso, salvo que por necesidades del servicio no fuese posible. A tal efecto, la persona responsable técnica del departamento deberá emitir informe justificativo al departamento de Recursos Humanos.

5. Ez dira ordubete baino gutxiagoko aparteko zerbitzuak ordainduko. Edonola ere, horiek denborarekin konpentsatu beharko dira.

5. No se abonarán en nómina servicios extraordinarios inferiores a 1 hora. Estos en todo caso deberán ser compensados en tiempo.

**85. artikulua.- Noizbehinkako egoerek eragindako aparteko zerbitzuen haborokinak**

**Artículo 85 .- Gratificaciones por servicios extraordinarios debidos a circunstancias esporádicas**

1. Noizbehinkako egoerek eragindako aparteko zerbitzuen haborokinetarako modalitate hauek daude: nekagarritasuna, toxikotasuna edota

Las gratificaciones por servicios extraordinarios debidos a circunstancias esporádicas existirán en las siguientes modalidades: penosidad, toxicidad y/o



arriskugarritasuna, gauekotasuna eta jaieguna.

peligrosidad, nocturnidad y festividad.

a) Nekagarritasuna: haborokina jasoko da nekagarritasunagatik, baldin eta, beharrezkoak diren babes neurriak hartu arren, jarduerak egitean eragozpen maila handia eragiten bada zaratengatik, bibrazioengatik, keagatik, gasengatik, usainengatik, lainoengatik edo airean esekita dauden hautsengatik, edo jardunarekin zerikusia duten beste substantziengatik.

a) Penosidad: dará lugar a la percepción de gratificación por penosidad cuando se realicen actividades que, a pesar de la adopción de las medidas de protección exigibles, se mantengan niveles significativos de molestias por los ruidos, vibraciones, humos, gases, olores, nieblas o polvos en suspensión u otras sustancias que las acompañen en su ejercicio.

b) Toxikotasuna: haborokina jasoko da toxikotasunagatik, baldin eta, beharrezkoak diren babes neurriak hartu arren, jarduera bat egitean giza osasunerako kaltegarriak diren produktuen eraginpean egoteko arriskua badago.

b) Toxicidad: dará lugar a la percepción de gratificación por toxicidad cuando se realicen actividades que, a pesar de la adopción de las medidas de protección exigibles, exista el riesgo de exposición a productos que resulten perjudiciales para la salud humana.

c) Arriskugarritasuna: haborokina jasoko da arriskugarritasunagatik, baldin eta, beharrezkoak diren babes neurriak hartu arren, jarduera egiten duten pertsonen osotasun fisikorako arriskua badago.

c) Peligrosidad: dará lugar a la percepción de gratificación por peligrosidad cuando se realicen actividades que, a pesar de la adopción de las medidas de protección exigibles, existan riesgos para la integridad física de las personas expuestas.

d) Gauekotasuna: gaueko ordutegia 22:00ak eta 06:00ak bitartean egiten dena da, baina lanaldiaren erdia edo gehiago gaueko ordutegiaren barruan egiten bada, lanaldi osoa gaueko txandan egindakotzat hartuko da.

d) Nocturnidad: el horario nocturno es el realizado entre las 22 horas y las 6 horas, aunque si la mitad o más de la jornada se realizase en período nocturno, se entenderá realizada toda ella en turno de noche.

e) Jaieguna: jaiegunean lan egiten da larunbateko edo jaiegun bezperako 22:00ak eta igande edo jaieguneko 22:00ak bitartean lan egiten denean.

e) Festividad: el trabajo en festivo es el realizado desde las 22 horas del sábado o víspera de festivo hasta las 22 horas del domingo o festivo.

2. Tarte orokorreko berariazko osagarria zehazterakoan ezaugarri horiek haztatu zaizkien lanpostuetan –halako gorabeherak ohiko dituztelako–, kontzeptu horiengatik ez dira aparteko zerbitzuak ordainduko.

2. No procederá la percepción de servicios extraordinarios por estos conceptos en aquellos puestos de trabajo en que para la determinación del complemento específico tramo general hubieran sido ponderadas dichas circunstancias por su habitualidad.

3. Osagarri hori ezin izango da aldizka jaso, eta ezin izango du zenbateko finkorik izan; halaber, ezin izango ditu eskubide indibidualak eragin ondoz ondoko

3. La percepción económica de dicho complemento no podrá tener carácter periódico ni unas cuantías fijas ni podrá originar derechos individuales en



aldietan.

4. Lan horiek egin ahal izateko, alde zurretik idatzizko baimena beharko da, zeinean zehaztuko den modalitate bakoitzeko kontzeptua emango zaiola, eta horren zergatia arrazoitu beharko da. Salbuespenezko egoeretan edo presazko egoera atzerazinetan ez da alde zurretiko idatzia behar izango.

5. Kontzeptu honengatik udal langile batek egin behar dituen orduak ezin izango dute haren ohiko lanaldiaren % 10 gainditu nekagarritasuna, toxikotasuna eta arriskugarritasuna kontzeptuetan – banaka edo batuta–, eta ezin izango dute ohiko lanaldiaren % 20 gainditu gauekotasuna eta jaieguna kontzeptuetan –banaka edo batuta–.

6. Artikulu honetako hurrengo ataletan, "lan egindako ordu arruntzat" hartuko da formula honen kalkularen emaitza:

Soldata + Lanpostu-mailaren osagarria + Tarte orokorreko berariazko osagarria

Zehaztutako urteko lanaldia

7. Artikulu honetan jasotzen diren noizbehinkako egoerak irizpide hauek jarraituta konpentsatuko dira ekonomikoki:

a) Gaueko ordutegian lan egiten duen udal langileak egoera horretan lan egiten duen ordu bakoitzeko, lan egindako ordu arruntaren gaineko % 25eko igoera edo denbora bidezko konpentsazioa jasoko du.

b) Jaiegunean lan egiten duen udal langileak egoera horretan lan egiten duen ordu bakoitzeko, lan egindako ordu arruntaren gaineko % 50eko igoera edo denbora bidezko konpentsazioa jasoko du.

c) Lan nekagarriak, toxikoak edo arriskutsuak egiten

períodos sucesivos.

4. La realización de dichos trabajos requerirá con carácter preceptivo, salvo en situaciones excepcionales o casos urgentes e inaplazables, la autorización previa por escrito en la cual se motive razonadamente el reconocimiento de la asignación de dicho concepto en cada una de sus modalidades.

5. En ningún caso el horario total objeto de percepción de este complemento por parte de un empleado o empleada de este Ayuntamiento podrá superar el límite del 10% de su jornada habitual conjunta o separadamente para los supuestos de penosidad, toxicidad y peligrosidad, y del 20% conjunta o separadamente para los supuestos de nocturnidad y festividad.

6. En relación a los siguientes apartados de este artículo, se entenderá por "hora ordinaria trabajada" el resultado del cálculo de la siguiente fórmula:

Sueldo + Complemento de destino + Complemento específico tramo general

Jornada anual establecida

7. Las circunstancias esporádicas contempladas en el presente artículo se compensarán económicamente de acuerdo con los siguientes criterios:

a) El personal municipal que realice trabajos en horario nocturno percibirá por cada hora trabajada en esta circunstancia, un incremento o compensación en tiempo igual a un 25% sobre la hora ordinaria trabajada.

b) El personal municipal que realice trabajos en festivo, percibirá por cada hora trabajada en esta circunstancia, un incremento o compensación en tiempo igual a un 50% sobre la hora ordinaria trabajada.

c) El personal municipal que realice trabajos



- dituen udal langileak egoera horretan lan egiten duen ordu bakoitzeko ehuneko jakin bateko igoera edo denbora bidezko konpentsazioa jasoko du, tartean dauden egoerak kontuan hartuta; era honetara banatzen da:
- c) 1. Egoera bakarra badago tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 20ko igoera jasoko du.
- c) 2. Bi egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 25eko igoera jasoko du.
- c) 3. Hiru egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 30eko igoera jasoko du.
- d) Lan nekagarria, toxikoa edota arriskutsua gaueko ordutegian egiten duen udal langilearen ehunekoa era honetara handituko da:
- d) 1. Gaueko ordutegian aldagai bakarra badago tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 30eko igoera izango da.
- d) 2. Gaueko ordutegian bi egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 35eko igoera jasoko du.
- d) 3. Gaueko ordutegian hiru egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 40ko igoera jasoko du.
- e) Lan nekagarria, toxikoa edota arriskutsua, gaueko ordutegian, eta, gainera jaiegunean, egiten duen udal langilearen ehunekoa era honetara handituko da:
- e) 1. Jaiegunean egoera bakarra badago tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 70eko igoera jasoko du.
- penosos, tóxicos o peligrosos percibirá por cada hora trabajada en estas circunstancias, un incremento o compensación en tiempo igual a un porcentaje determinado dependiendo del número de circunstancias presentes. De este modo,
- c) 1. Si interviene una única circunstancia: el incremento consistirá en un 20% sobre la hora ordinaria trabajada.
- c) 2. Si intervienen dos circunstancias: el incremento consistirá en un 25% sobre la hora ordinaria trabajada.
- c) 3. Si intervienen tres circunstancias: el incremento consistirá en un 30% sobre la hora ordinaria trabajada.
- d) El personal municipal que realice trabajos penosos, tóxicos y/o peligrosos y además transcurrieran en horario nocturno, el porcentaje se incrementará de modo que:
- d) 1. Si interviene una única variable en horario nocturno: el incremento consistirá en un 30% sobre la hora ordinaria trabajada.
- d) 2. Si intervienen dos variables en horario nocturno: el incremento consistirá en un 35% sobre la hora ordinaria trabajada.
- d) 3. Si intervienen tres variables en horario nocturno: el incremento consistirá en un 40% sobre la hora ordinaria trabajada.
- e) Para el personal municipal que realice trabajos penosos, tóxicos y/o peligrosos, en horario nocturno y además en festivo, el porcentaje asimismo se incrementará de modo que:
- e) 1. Si interviene una única variable en horario festivo: el incremento consistirá en un 70% sobre la hora ordinaria trabajada.





- |  |  |
|--|--|
| <p>e) 2. Jaiegunean bi egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 75eko igoera jasoko du.</p>  | <p>e) 2. Si intervienen dos variables en horario festivo: el incremento consistirá en un 75% sobre la hora ordinaria trabajada.</p>    |
| <p>e) 3. Jaiegunean hiru egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 80ko igoera jasoko du.</p> | <p>e) 3. Si intervienen tres variables en horario festivo: el incremento consistirá en un 80% sobre la hora ordinaria trabajada.</p>   |
| <p>e) 4. Jaiegunean lau egoera badaude tartean: lan egindako ordu arruntaren gaineko % 85eko igoera jasoko du.</p> | <p>e) 4. Si intervienen cuatro variables en horario festivo: El incremento consistirá en un 85% sobre la hora ordinaria trabajada.</p> |

**86. artikulua.- Kalte-ordainak zerbitzu arrazoiengatik**

1.- Zerbitzu arrazoiengatik egindako gastuengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du udal langileak, araudian zehaztutako kopuruetan eta baldintzetan.

2.- Gidabaimenak betekizun diren lanpostuetan, Errenteriako Udalak bere gain hartuko ditu horiek berritzeko gastuak, bai eta elkargoetako kide egiteko gastuak ere, lanpostuan jarduteko derrigorrezkoa bada.

3.- Norberaren ondasunetan izandako kalteengatik (betaurrekoak haustea, erlojuak, etab.) kalte-ordainak emango dira lan profesionalen eta "zerbitzu-egintza" gisa hartzen diren jardunen ondorioz direnean, betiere lanaldiaren barruan gertatzen badira.

4. Udal langileak bere lanpostuaren betebeharra dela eta bere lanlekutik bestelako leku batera joan behar duenean jarduketa judicial edo administratiboren batera (esaterako, Donostiako epaitegira), Udaltzaingoko langileen kilometraje gastuak ordaintzearen, 2013ko abenduaren 30eko Alkatetza Dekretu bitartez ezarritakoaren arabera, kilometrajea ordainduko zaie Errenteriatik Donostiarara (15 km), Udaltzaingoko departamentuak ibilgailua utzi ezean. Halaber, TAO/parkingaren tiketa ordainduko zaie, epaiketari izateko behar izango duten denboraren arabera. Garraio publikoan joan nahi dutenei garraioaren txartela ordainduko zaie (busa, tren).

**Artículo 86 .- Indemnizaciones por razones de servicio**

1.- El personal municipal tendrá derecho a ser indemnizado de los gastos realizados por razón del servicio, en las cuantías y condiciones que reglamentariamente se determine.

2.- El Ayuntamiento de Errenteria, en los puestos de trabajo en que sea requisito, asumirá los gastos por la renovación de los permisos de conducir necesarios, así como los gastos de colegiación obligatoria para el desempeño de los mismos.

3.- Se indemnizarán por daños sufridos en bienes propios (tipo rotura de gafas, relojes, etc.) derivados de trabajos profesionales y actuaciones consideradas "actos de servicio" siempre que fueran realizadas dentro de la jornada laboral.

4. Cuando el personal municipal tenga que acudir por imperativo de su puesto de trabajo a actos de tipo judicial o administrativo a un lugar distinto de su centro de trabajo (por ejemplo al juzgado de Donostia), a efectos de indemnización por gastos de kilometraje al personal de la Policía Local, de conformidad con lo dispuesto en el decreto de alcaldía de fecha 30 de diciembre de 2013, se les abonará el kilometraje salvo que desde el departamento de la Policía Local se les ceda un vehículo, desde Errenteria a Donostia (15 kms.). Asimismo, se les abonará el ticket de la OTA/parking durante el tiempo preciso para la asistencia al juicio.



Gainerako udal langileekin irizpide bera erabiliko da, betiere artikulua honen 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Aquellos que prefieran asistir en transporte público, les será abonado el billete de transporte empleado (bus, ferrocarril). Este mismo criterio se utilizará con el resto del personal municipal siempre de conformidad con lo establecido en el párrafo primero de este mismo artículo.

## **II. kapitulua. AKORDIO HONETAN JASOTZEN DEN ORDAINSARI-SISTEMARA EGOKITZEA**

## **Capítulo II. ADECUACIÓN AL SISTEMA RETRIBUTIVO CONTEMPLADO EN EL PRESENTE ACUERDO**

### **87. artikulua.- Ordainsari-sistemaren egokitzea**

1. Akordio hau indarrean jartzen denean, Udaleko udal langileen ordainsari-sistema funtzio publikoari buruz indarrean dagoen legediak zehazten duena izango da, titulu honetan jasotzen diren parametroekin bat eginda.

2. Ordainsari egiturara egokitzea honako irizpideak jarraituta egin beharko da:

a) Lanpostu bakoitzak bere ordainsaria izango du soldata kontzeptuan, dagokion sailkapen taldearen arabera.

b) Udaleko lanpostu bakoitzari lanpostu-mailako osagarria ezarriko zaio; maila hori udal langileen ordezkariekin negoziatu eta gero zehaztuko da, eta ekitate- eta hierarkia-irizpideak erabiliko dira horretarako, honako orientazio-parametro hauek jarraituta.

Aldez aurretik zehaztutako maila duten lanpostuak:

b) 1. Erreferentzia puntu gisa, lanpostu batek edozein kontzepturengatik maila jakin bat zehaztuta badauka, horixe ezarriko zaio lanpostu horri dagokion lanpostu-mailako osagarriaren gutxieneko maila gisa; edonola ere, sailkapen talde bakoitzerako legez ezarrita dauden tartek bete beharko dira.

### **Artículo 87. Adecuación del sistema retributivo**

